

# 11

## **Kuota osoa**

11.1 Zer da kuota osoa?

11.2 Oinarri likidagarri orokorraren karga

11.3 Oinarri likidagarri bereziaren karga



### 11.1 Zer da kuota osoa?

Izaera orokorrean, karga tasa oinarri ezargarriari aplikatuz ateratzen den emaitza da kuota osoa. Bereziki, karga tasak oinarri likidagarri orokorrari eta oinarri likidagarri bereziari aplikatuz ateratzen diren kopuruen batura da kuota osoa.

### 11.2 Oinarri likidagarri orokorraren karga

Hona hemen oinarri likidagarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa edo karga eskala:

Oinarri likidagarri orokorra (kopuru honetaraino, eurotan)	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa	Tasa (%)
3.672,00	0,00	3.060,00	15,00
6.732,00	459,00	7.140,00	23,00
13.872,00	2.101,20	13.668,00	28,00
27.540,00	5.928,24	14.280,00	35,00
41.820,00	10.926,24	19.380,00	42,00
61.200,00	19.065,84	Hortik gora	48,00

**Kargaren batez besteko tasa orokorraren kalkulua:** kuota osoa ehunekin biderkatu eta oinarri likidagarri orokorrarekin zatitzen da. Bi zenbaki hamartar jarrita adieraziko da emaitza.

#### Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuen ondare irabazien doikuntza

Zergadunaren batez besteko karga tasa orokorra Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino handiagoa denean kuota osoa zuzendu egin behar da. Horretarako, kuota osoari gutxitu behar zaio tasen arteko diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa osatzen duten ondare irabazien zenbatekoa aplikatuz ateratzen den kopurua.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, jardueraren etekin garbia zehazteko kontuan hartutako ondare galerak kenduko zaizkie ondare irabaziei.

### 11.3 Oinarri likidagarri bereziaren karga

Oinarri likidagarri berezia %15eko tasa bereziaz kargatuko da.

#### Adibidea

Demagun errenta hauek lortu dituzula 2005. urtean, hain zuzen ere, ezkontidearekin batera tributatu duzun urtean:

Lanaren etekin garbia	24.040,48 €
Kapital higikorren etekin garbiak	1.803,04 €
Kapital higiezinaren etekin garbiak	4.207,08 €
Jarduera ekonomikoen etekin garbiak*	-18.030,36 €

(\*) Jarduera ekonomikoaren etekinen artean, 6.010,12 euroko ondare irabazia dago, jardueraren aurreko ondasun higiezin bat salduz lortu duzuna, salmentaren zenbateko berrinbertitu gabe.

Urtebetetera arte	Ondare irabazia	6.010,12 €
	Ondare galera	-12.020,24 €
Urtebetetik gora	Ondare irabazia	18.030,36 €
	Ondare galera	-6.010,12 €

Gainera, 3.606,07 euroko ekarpena egin duzu borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate batean.

Jarraian, kontzeptu hauek kalkulatu ditugu: oinarri ezargarria, oinarri likidagarria eta kuota osoa.

#### Oinarri ezargarri orokorra

Etekinak eta errenta egotziak	
Lanaren etekin garbia	24.040,48 €
Kapital higikorren etekin garbia	1.803,04 €
Kapital higiezinaren etekin garbia	4.207,08 €
Jarduera ekonomikoen etekin garbia	-18.030,36 €
<b>Saldo positiboa</b>	<b>12.020,24 €</b>

Urtebetetik beherako epean sortutako irabaziak eta galerak	
Ondare irabazia	6.010,12 €
Ondare galera	-12.020,24 €
Saldo negatiboa*	-6.010,12 €

(\*) Konpentsatu egin behar da ondorengo 4 urteetan sortutako mota

bereko ondare irabazi eta galerekin.

<b>Oinarri ezargarri orokorra</b>	<b>12.020,24 €</b>
-----------------------------------	--------------------

#### Oinarri ezargarri berezia

Urtebetetik gorako epean sortutako irabaziak eta galerak	
Bi urtetik gorako ondare irabazia	18.030,36 €
Bi urtetik gorako ondare galera	-6.010,12 €
<b>Saldo positiboa</b>	<b>12.020,24 €</b>

<b>Oinarri ezargarri berezia</b>	<b>12.020,24 €</b>
----------------------------------	--------------------

#### Murrizpenak oinarri ezargarri orokorrean

Murrizpenak BGAEtan egindako ekarpenengatik

Ekarpena BGAEari (muga: 8.000,00 euro)	3.606,07 €
--	------------

Murrizpena batera tributatzegatik: 3.600,00 euro.

## Kuota osoa

<b>Murrizpena oinarri ezargarri orokorrean</b>	
Murrizpena BGAEari egindako ekarpenagatik	3.606,07 €
Murrizpena baterako tributazioagatik	3.600,00 €
<b>Guztira</b>	<b>7.206,07 €</b>

## Oinarri likidagarri orokorra

Oinarri ezargarri orokorra	12.020,24 €
Murrizpenak	-7.206,07 €
<b>Oinarri likidagarri orokorra</b>	<b>4.814,17 €</b>

## Kuota orokor osoa

<b>Oinarri likidagarri orokorra</b>		<b>Kuota osoa</b>	
Gehienez	3.672,00 €		0,00 €
Gainerakoa	1.142,17 €	% 15ean	171,33 €
<b>Guztira</b>	<b>4.814,17 €</b>		<b>171,33 €</b>

Beraz, kuota orokor osoa 171,33 eurokoa da.

$$\text{Batez besteko tasa} = \frac{\text{Kuota orokor osoa}}{\text{Oinarri likidagarri orokorra}} \times 100 = \frac{182,13}{4.814,17} \times 100 = \%3,56$$

<b>Kuota orokor osoa</b>	<b>171,33 €</b>
--------------------------	-----------------

## Oinarri likidagarri berezia

<b>Oinarri likidagarri berezia</b>	<b>12.020,24 €</b>
------------------------------------	--------------------

## Kuota berezi osoa

<b>Kuota berezi osoa (12.020,24 €-ren %15)</b>	<b>1.803,04 €</b>
--	-------------------

## Kuota osoa, guztira

<b>Kuota osoa, guztira (171,33 € + 1.803,04 €)</b>	<b>1.974,37 €</b>
--	-------------------

**Irabaziaren doikuntza:** ez da bidezkoa, karga orokorraren batez besteko tasa (%3,56) txikiagoa delako Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino.

Beraz, **doitutako kuota osoa** 1.974,37 eurokoa da.